

1999ko abenduaren 21eko, Foru Dekretua 121/1999, Gipuzkoako Lurralde Historikoan Adinekoen Kontseilua sortzeko araudia onartzen duena.

OHARRA

Testu hau dibulgaziozkoa da soilik, eta ez du inolako izaera ofizialik. Araua osoa eta eguneratua jasotzen da bertan.

Autonomia Erkidego Osoko Erakundeen eta horren Lurralde Historikoetako Foru Erakundeen arteko Harremani buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legeak, 7. artikulua 1. eta 2. ataletan ezartzen duenez, azken erakunde hauei, beren lurraldearen barruan, Autonomia Erkidego Osoko Erakundeen legebideak betearaztea dagokie, gizarte laguntzari, komunitate hazkuntzari, emakume gaiei, eta, hurrekiko, gazteekiko, zahartzaroarekiko, atsedean eta aisiarekiko politikari dagokienez, Erkidego Osoko Erakundeen arteko ekintzaren kaltetan gabe.

Eusko Legebiltzarreko urriaren 18ko 5/96 Legeak, gizarte zerbitzuak, ezartzen du gizarte zerbitzu sistema arautu behar duten printzipio orokorren artean, gizarteak parte hartzearena, botere publikoen esku utziz, herritarrek gizarte zerbitzuetan demokratikoki parte har dezaten egin beharreko ahalegina, Legearen 20. artikuluan espreski ezarritako parte hartze eta kontsulta organoen bidez.

Botere publikoak derrigortuta daude pertsona horien gizarte ongizatea sustatzeko, beren arazo berezietan arduratzen den gizarte zerbitzu sistema baten bitartez. Sistema horren alderdi bat irtenbideak bilatzeko eragindakoen parte hartze arduratsua bermatuko duten egiturak mantentzea izango da. Xede horretarako erabiliko da, hain zuzen, Adinekoen Kontseilua.

Bestalde, azpimarratu behar da gizarte zerbitzuek lortu duten hedapen handiak, eta, bereziki, adinekoen dagokien hainbat ekintzak hartutakoak, Gipuzkoako Adinekoen Kontseilua, organo parte hartzaile eta aholku emaile gisa, sortu eta abian jartzeko bidea ematen dutela.

Kontseiluak adinekoek bildutako esperientzia aberasgarriak bideratu eta hedatzeko bide izan behar du, beren parte hartzea bultzatzen duen bitartean.

Azken finean, Kontseiluaren helburua gizarte ekintza publikoa zuzentzen duten printzipioetako bat eraginkor bihurtzea da, gizarte ekintzan adinekoek parte hartzea, hain zuzen ere.

Adinekoen Kontseilua sortzeko Gipuzkoako Foru Aldundiak duen eskumenari dagokionez, gizarte zerbitzuen legeak 11.7 artikuluan espreski azpimarratzen du foru erakundeei dagokien zeregina, adinekoen eta haien antolakuntza organoen parte hartzea bultzatzekoa, hain zuzen.

Hori betez, Gizartekintza Departamentuko foru diputatuak proposatuta, eta gaurko egunez Diputatuen Kontseiluak eztabaidatu ondoren, ondorengo hauxe,

XEDATU DUT

1. artikulua. Izaera.

1. Gipuzkoako Lurralde Historikoko Adinekoen Kontseilua, adinekoek eta, beraiekin lotutako entitate, elkarte eta erakundeek parte hartzeko foro berezi gisa sortua izan da, herritarren sektore horren ongizatea lortzera zuzendutako politika eta jarduketan planifikazio eta jarraipenean elkarlanean jarduteko asmoz.

2. Gipuzkoako Lurralde Historikoko Adinekoen Kontseilua organo kolejiatua da, aholku emailea, eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizartekintza Departamentuari atxikia, eta adinekoekin lotutako gizarte politikaren diseinu, abian jartze eta jarraipenean parte hartu beharko du.¹

2. artikulua. Xedea, helburua eta eginkizunak.

a) Adinekoekin horren baztertzailerik izango ez den gizarte integratzaileago bat lortzen laguntzea.

b) Gizartea adin ezberdinetako pertsonen osatzen dutelako aitortzen eta onarpena bultzatzea, belaunaldien arteko elkarlana sustatuz.

c) Adinekoen irudi errealago bat eta estereotipo gutxiagoduna zabaltzea, bere arlo onak eta solidarioak nabarmenduz.

d) Gizarte esterotipoen aurkako kanpaina bereziak bultzatzea.

e) Menpekotasun edota bazterkeria egoerei aurre egiteko politikak bultzatzea.

f) Adinekoen giza baliabideak hobeto aprobeatza daitezzen laguntza ematea, beren autoestima nahiz parte hartze maila eta integrazioa hobetuz.

g) Gizartekintza Departamentuarekin lankidetzan jardutea, gizarte zerbitzuetako Legearen esparruan, eta adinekoen taldearen jarduketa arloan.

h) Gizarte arlo horrekin zuzenean lotutako politikarekiko Lurralde Historikoaren egokitzapena ezagutzea eta haren berri ematea.

3. artikulua. Egitura, osaketa eta izendapena.²

1. Hona hemen Adinekoen Kontseiluko kide izango direnak:

— Lehendakaria:

Gizarte zerbitzuen arloko eskumena duen departamentuko foru diputatua izango da Kontseiluko lehendakaria eta haren ordezkari izango duena, eta honako egitekoak izango ditu, gainera:

- a) Bileretarako deia egitea.
- b) Bileretarako gai zerrenda erabakitzea.
- c) Bilerei hasiera eta amaiera ematea.
- d) Eztabaida zuzendu eta etetea, eta hitza eskatzen duenari, ematea edo ukatzea.
- e) Berdinketa dagoenean, bere botoaz erabakitzea.
- f) Foru dekretu honek edo indarrean dagoen arautegiak ematen dion beste edozein.

Egiteko horiek lehendakariordeari eskuordetu ahal izango dizkio.

— Lehendakariordea:

Lehendakariak izendatzen duen kontseilukidea izango da lehendakariordea.

² 3. artikulua honako arau honek aldatu du: urriaren 24ko 17/2017 Foru Dekretuak, aldatzen duena 1999ko abenduaren 21eko 121/1999 Foru Dekretua, Gipuzkoako Lurralde Historikoan Adinekoen Kontseilua sortzeko araudia onartzekoa (2017ko urriaren 27ko GAO).

Lehendakariordeari dagokio:

- a) Lehendakaria ordeztea, lehendakaririk ez denean, kanpoan dagoenean edo gaixo dagoenean.
- b) Batzorde Iraunkorraren bileren deialdia egin eta haien buru izatea.
- c) Lehendakariak eskuordetutako egitekoak betetzea.

— Kontseilukideak:

- a) Lurralde mailan adinekoen elkarte mugimenduetan lan egiten duten erakundeetako hiru (3) ordezkari.
- b) Lurralde mailan adinekoen eremuan lan egiten duten irabazi asmorik gabeko erakundeetako bi (2) ordezkari.
- c) Gizarte zerbitzuen alorrean Gipuzkoako Lurralde Historikoa egituratzen duten eskualde bakoitzeko ordezkari bana (1).
- d) Gipuzkoako Foru Aldundiko hiru (3) ordezkari.
- e) Eudeleko ordezkari bat (1).
- f) Kabia organismo autonomoko ordezkari bat (1).

2. Gizarte zerbitzuen arloko eskumena duen departamentuko foru diputatuak egingo du Kontseiluko kideen izendapena, erakundeek proposatuta titularraz gain, titularra egon ezean bere ordezkari jardungo duen ordezkaria ere.

3. Gizarte zerbitzuen arloan eskumena duen departamentuko idazkari teknikoak jardungo du Kontseiluko idazkari lanetan. Idazkariak hitz egiteko eskubidea izango du, baina botorik ez..

4. artikulua. Iraupena.

Adinekoekin lotutako erakunde eta elkarteko ordezkariak lau urtez jardungo dute ordezkari lanetan.

5. artikulua. Antolakuntza.

1. Kontseiluko antolakuntza eta funtzionamendua 30/1992 Legeko, Herri Administrazio guztien Zuzenbide Arauen eta Administrazioaren Jardunbidearen Legeko II Tituluaren II kapituluaren Herri Administrazioetako organo kolejiatuentzat xedatutakoari jarraiki egingo da.

2. Gipuzkoako Lurralde Historikoko Adinekoen Kontseiluak bere antolaketa araudia onartu ahal izango du, funtzionatzeko behar dituen arauak dituen, eta Araudi orokorrari eta foru dekretu honetan ezarritakoari jarraiki.

6. artikulua. Funtzionamendua.

1. Kontseilua hiru hilabetetan behin, gutxienez, bilduko da ohiko bileran; aparteko bileran, berriz, eztabaidatu beharreko gaien premiak hala eskatzen duenean, aldez aurretik, lehendakaritzak bere kabuz deituta, edota Kontseiluko kideen heren batek eskatuta.

2. Kontseiluko Lehendakariak zazpi egun natural aurretik deituko ditu bileretara, eta deialdiarekin batera, gai zerrenda ere bidaliko du, Lehendakariak berak emandako jarraibideen arabera Idazkari lanetan diharduenak egindakoa.

3. Kontseiluko bilera egin ahal izateko, Lehendakariak edota legez ordezkatzeko duenaz gain, kideen erdia, gutxienez, ere behar-beharrezkoa izango da.

4. Arrazoiak adieraziz emango da erabakien berri, eta bertan diren kideen gehiengo soiluz hartuko dira erabaki horiek. Lehendakariak, edota legez ordezkatzeko duenak bere kalitate botoaz erabakiko du berdinketa gertatuz gero. Erabakian, gehiengoaren erabakiaren aurkako botu partikularrak ere kontuan hartu ahal izango dira.

5. Kontseiluko erabakiak Idazkariak idatzitako aktan jasoko dira.

Xedapen iragankorra.

Lehenengo.

Foru Dekretu hau indarrean jarri eta hilabeteko epean, Gizartekintza Departamentuko foru diputatuak Adinekoen Kontseiluko kideak izendatuko ditu.

Bigarrena.

Kontseilua Foru Dekretua argitaratzen denetik hilabeteko gehieneko epean eratuko da.

Azken xedapenak

Lehenengo.

Gizartekintza Departamentuko foru diputatuari ahalmena ematen zaio foru dekretu hau garatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

Bigarrena.

Adinekoen Kontseilua sortzeko emandako foru dekretu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.